

Sameh, Irak-ekoa, naiz eta gertatu zaidan gauza bat kontatuko dizuet. Udako egun batean lagun eta senide batzuekin txango bat egin genuen.

Besteekin jolasten ari nintzela izeba baten deia entzun nuen.



Begiratu nuen eta han urruti samar **pakete handi bat kotxera eramaten ari zela** ikusi nuen.



**Ezer ez entzunarena egin nuen eta jolasten jarraitu nuen.**

Nire lagunak ere ez zutela izebaren deia entzun esan zidaten, baina berak behin eta berriro niri deitzen zidan ni pisu handi hura eramateko oso txikia nintzen arren.

Baina ahots batek nire bihotz barruan gogor esaten zidan: "Sameh, zu Jesusena zara, zu ezberdina zara". Eta nire buruari esan nion "Orain Bera deika ari zaizu". Orduan lagunak utzi, eta korrika izebari laguntzera joan nintzen.

Lagunak ilea hartzen hasi zitzaizkidan, baina pakete handi hura nire bizkarrean jartzen ari nintzela, nire lagunak etorri eta kotxera eramaten lagundu zidaten.



Haietako batek esan zidan: «**Jesusek poza ematen dio maite duenari**», eta nirea, une hartan, handi-handia zen!

**ZUK ZER EGINGO ZENUEN?**

## «EZ DEZAGUN HITZEZ ETA AHOZ MAITA, EGITEZ ETA EGIAZ BAIZIK»

Egitez maite? Baina zer ikusirik dauka horrek fedarekin?

Kristau Jesusenganako fedea goraiatzan zuten, baina bere ekintzek ez zetozen bat fede horrekin. Bada, Joan apostoluak bere kristau elkarteak horien aurka guardian jartzen ditu.

Ondo. Ulertu dut!. Maitasun honen lehengo ezagugarria bat zehatza izatea da.

Jesusek ez gintuen hitzaldi ederrez maite izan, baizik eta on eginez bizitu zen gure artean, guztiak sendatuz, erabateko arreta edukiz berarengana zetozenentzat, lehenik ahulenen, pobreenen eta baztertuenen alde, eta bere bizia gugatik emanez.

Gogoratzen al duzu Jesusen gertakariren bat honi buruz?

Hartu Ebanjelioa eta irakurri gertakari horietako batzuk?

**Eta zer esan nahi du egiaz maitatu behar dugula?**

Kristau maitasuna Jesusengan aurkitutako maitasunaren egian inspiratzen da.

Beraz, Jesusek irakatsi zigun moduan eta neurrian maitatu behar dugu.

IOso argia da bere mezua. Jesusek hainbeste azpimarratu zuen benetakoa kristau izatera deitzen digu.

Benetakotasuna = Testigantza!  
Hori da nire lagun guztiek ikusi behar dutena nik bizitza kristauaz hitz egitean.

Has gaitezen Jesusen maitasunaren lekukoak izaten.

## MemoryCard

HORRELA, BADA,  
MAITA DEZAGUN  
EGITEZ, ETA EZ  
HITZEZ, ALBOAN  
DITUGUN PERTSONEK  
EGUNERO ESKATZEN  
DIZKIGUTEN MESEDE  
TXIKI HORIETATIK  
HASIZ.



## In Action...

**AURKITU EBANJELIOAN  
JESUS KONKRETUKI  
MAITATZEN**